



AMASAN LOATZOKO IGOERA-JAITSIERA, ETZI

Hamazazpigarren aldia izango da aurtten; Uxo-Toki elkarteak antolatuta, 10:30ean abiatuko dira kirolariak >4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-04-24

VII. URTEA 1.684. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Anoetako Udalak eta Herri Ikastolak antolatutako Hizki-Marrazki Ipuin Marraztuen Lehiaketaren irabazleak. A. IMAZ

LIBURUEK OMENALDIA MEREZI DUTELAKO

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi ugari egin zituzten atzo eskualdeko hainbat herritan 7

Arteca enpresan 20 langile kaleratu nahi dituztela salatu dute

VILLABONA Enpresak bi espediente aurkeztu ditu; langileek mobilizazioak egingo dituzte 5

Bost pilota partida izanen dira bihar Nafar Jokoen baitan

LEITZA GRAVN Txapelketan, berriaz, Jon Jaunarena ariko da Nafarroa ordezkatzuz 6

Uraren garrantziaz ohartarazi nahi du Rabagok

TOLOSA 'El Roto' artistaren 'Agua tinta' erakusketa ikusgai dago maiatzaren 17ra arte, Aranburu jauregian, Naturaldiaren baitan 3



Modu satirikoan ohartarazi nahi du Andres Rabagok uraren beharraz. E. EZBEA



berabera
EHAKUNEKO ESKUBALOI TALDEA

- Arantxa Zinkunegi (Tolosa)
- Sagrario Lasarte (Leitza)

Akaba Bera Bera Balonmano Alcobendas

Bidebietako kiroldegia
Apirilak 26 ◦ igandea ◦ 19:00

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

saridunak

- Nekane Jauregi (Tolosa)
- Joxe Mari Agirre (Alegia)

II. Ñañarri Rallyesprint

Alegia - Orendain - Abaltzisketa - Amezketza
Apirilak 25 ◦ larunbata ◦ 15:30

irabazleek bere nortasun agiria erakutsi beharko dute zirkuituko edozein sarreratik sartzen direla ere



sarrerak



TXOKOA hitza

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldeko hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Irurako amari erantzuna

Irurako ama horri eta bide batez irakurle guztiei: Jakin niri gauza bera gertatu zitzaizkida 2004. urtean. Orain matrikulazio garaian jarritzen dute, baina niri kobratu ekainean eta urte hartako urrian egingadako batzorde eragile batean erabaki zuten ez zutela dirurik bueltatuko nikexatu eta gero.

Jasotako erantzuna nahi duen eskura dut, aitzakia besterik ez. Konsumitzaile bulegokin harremanetan jarri eta gero ezerezean gelditu zen dena. Jakin nahiko nuke zenbati egin dion hau Loatzok.

Herritar bat.**Villabonako bazkide eta ezin dut Usabalera sartu**

Banekin udaran Usabalek Villabonako Olaederra kiroldegiko bazkideei sarrera kobratzen ziela, jende gehiegi sartzen zelako eta leku arazoa zegoelako. Ez nago neurri horrekin ados, baina ulertu dezaket, esan nahi dut, argudioa ulertzen dudala.

Baina zein izan da nire sorpresa lehengoan nire koadrilakoekin Squash-en jolasteko geratu nintzela eta sarrera kobratu zidatela, zazpi euro! Nik Olaederra kiroldegiko kuota ordaintzen dut hilabetero-hilabetero eta orain ezin dut Tolosako instalazioetara sartu ere egin. Oraingoan zein izango litzateke Usalgoen argudioa? Jakin nahiko nuke, ze asko haserretu nintzen.

liño.**Mendi ibilaldia**

Guraso Elkarteak udaberriean antolatutako mendi irteeran parte

hartzera gonbidatzen zaitu Jesusen Bihotza Ikastolak. Jakin ezazu nahi duen guraso eta ikasle orok har dezakeela parte irteerara hauetan. Honez gain, 12 urte bitarteko ikasleekin helduren bat joatea komenigarria dela ikusten dugu (hiru umeko heldu bat, adibidez).

Izenik ez duzue eman behar. Egunean bertan agertzearekin nahikoa da.

Nora: Errekako itzulia (Zentroa - Etxeondo - Arana Erreka - Alustiza).

Eguma: Apirilak 26, igandea. Irteera: Zentro Ikastola, 10:00etan.

Itzulera: Zentro ikastola, 13:00ak aldera.

Norberak eraman beharrekoak: -Hamaiketakoa eta edaria (Alustizian jango da).

-Mendiko oinetakoak eta arropa egokia.

-Xira edota aterkia, eguraldia ez bada oso segurua.

Guztien gustukoa izango delakoan, parte-hartzera animatu egin nahi zaituztegu.

Eguraldi txarra egingo balu ibilaldia laburragoa egingo genuke; Amasako itzulia, ordubetez.

Jesusen Bihotza ikastola.**Amarotz eta Txarama lotzeko bidegorria bukatuta**

Gaur Lizartza aldera joan behar izan naiz kotxearekin Tolosatik eta ikusi dut bukatu dutela Txarama eta Amarotz lotzen duen bidegorria. Egia esan, nahiko txukuna geratu da. Margotu dute bidea, eta nahiko zabala da. Errepidea ere txukundu dute eta lehen baino askoz hobe dagoela iruditzen zait. Gauza bat bakarrik: bidegorriko

tramo gehienean ez daude egurrezko babesleak, plastikozkoak baizik (urdinak), eta hori ez zait oso seguroa iruditzen ibiltzen da goenarentzat. Egurrezkoek agian berdin babesten badute ere sentazioa ez da hori.

Adibidez, plastikozko piboteak dauden zatietan bizikletan bazabiltza, errepidera ateratzeko arriskua dago, egurrezko barandilekin ez bezala.

Leire.**Usabal kiroldegiko gertaera**

Tolosako Usabal kiroldegiko erabiltzaile bat joan den igandean (apirilak 19) 10:55etan kiroldegian sartu zen eta 87. zenbakia duen takilla erabili zuen. Bertatik Camper markako zapatilla txuri batzuk hartu zituen. Kiroldegian berriz uztea eskertuko nioke.

Usabalgo erabiltzaile bat.**Txapin festa antolatu behar dute aurten?**

Iaz egin zen eta oso ondo pasatu nuen. Aurten ere zerbaite entzun dut. Beraz, egingo dute?

Lehenko urtean Txapin Festan parte hartu nuen eta kriston ondo pasatu nuen. Aurten ere antolatu

B Blogteka**Kirikiñoko kanpaketak**

Kirikiñok Aste Santuan egiten dituen kanpaketak amaierara iritsi dira. Pazko aste honetan Koxkorak, Bizkorak eta Helduak-eko neska-mutilak egun batzuk igaro dituzten etxetik kanpo. Txikiak (5. eta 6. mailakoak) Larraularen egon dira; ertainak (DBH 1. eta 2. mailakoak) Barrian; eta helduenak (3. eta 4. mailakoak) Azkaraten. Talde batzuk asteartean atera ziren eta ostegunean bueltatu, beste batzuk aldiz, ostegunetik larunbat arte egon dira. Guztietan eredu kristaua jarraituz bizikidetzara euskaraz gozatzea helburu izan da.

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/hirukide>

behar dutela entzun det eta espero det aurrera ateatzea. Poteoa, bazkaria, jolasak eta kontzertuak uste dut izan zirela joan den urtean. Espero det aurten ere holako zeeze ere egitea. Mesedez, eskutuko nizueke, festa honen berri ematea. Eskerrik asko!

Xuban**K Kirol jarduera****Gaur, ostirala****Areto futbol**

■ Usabalgo beheko kantxan, 20:30ean, nesken mailan: Laskorain-La Salle.

Bihar, larunbata**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etik aurrera, neskek: TAKE A-Langaitz eta TAKE B-Ordizia. Mutiletan, TAKE C-Antigua Luberri.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etik aurrera, infantilen mutilen maila, TAKE A.Easo Haritza; kadeteen nesken mailan: TAKE-Bera-Bera.

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, junior mailak: TAKE Orbela-Ordizia.

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etik aurrera, kadeteen mailan, Tolosa-Bidasoa.

Eskola kirola

■ Usabalgo beheko kantxan, 11:00etan, areto futboleko infantil mutilak.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:00etan, kadeteen lehen mailan: Tolosa CF-Mundarro.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:30ean, emakumezkoen kadeteen futbol 8: Tolosa CF- Beti Ona.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:00etan, kadeteen Euskadiko Liga: Tolosa CF-Romo.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, lurraldekako lehen maila: Tolosa CF-Orioko.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:15ean, jubenilen lehen mailan: Amaroiz-Amara Berri.

Etzi, igandea**Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, alebilen mailan: Tolosa CF-Dunboa Eguzki.

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, Bigarren Nazional mailan: Laskorain-Orioko.

H Hilberria**JOSE MARIA GONZALEZ DE DURANA EGILUZ**

Jauna

Atzo hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere emaztea: Aintziñe Mendia; seme-alabak: Garbiñe (Segundo Arratibelen alarguna), Jaione eta Jose M^o Kerejeta eta Xabier; bilobak: Irati eta Beñat; anai-arrebak: Jose Luis (Nati Ilarduiaren alarguna), Alejandro eta Ascen Nuiñ; ilobak, lehengusuak eta eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoiñ bat eskaltzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR, OSTIRALA, arrasaldeko ZAZPIETAN, JASOKUNDEKO ANDRE MARIAREN parroki elizan gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Antio etorbidea, 7-2. ezkerre
Oharra: Hilbeila Santa Isabel Tanatorioan dago.



ZUMARRAGA
2009ko apirilaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Uraren beharraz modu satirikoan ohartarazten du Rabagok

Kultura » Naturaldiaren baitan, Andres Rabago 'El Roto'-ren erakusketa ikusgai da maiatzaren 17ra arte, Aranburu jauregian.

ERREDAKZIOA

Naturaldia jardunaldien baitan, adituak hitzaldiek ez ezik, arteak ere badu bere tartea oraingo honetan. Hala, maiatzaren 17ra arte ikusgai da Aranburu jauregian, *Agua Tinta* erakusketa. Andres Rabago *El Roto* damargolanen egilea. Honek, ikusleen kontzientziak kolpatu nahi ditu bere lanekin, modu zuzen eta argi batean.

Agua Tinta urari buruzko umore grafikoko erakusketa da. Umore adimentsuaren bitartez, topiko zabalduenetatik eta zuzentasun politikotik urrun, biñetek ikusleari agertzen diote zeinen ilogikoa den natura eraldatzeko erabiltzen den irizpidea. Kutsadura, uraren aldeko borroka, urari buruzko obrak, uraren erabilera, ingurugiroarekiko eraginak... ditu hizpide *El Roto* bere marrazki originaletan. Batzuetan, koloretan, eta besteetan, txuri-beltzean.

Egileak urtebetez CENEAMi (Espainiako Ingurumen Hezkuntzako zentrua) utzi dio bilduma,

bere erakusketa ibiltarien programan sar dezan, eta hainbat erakus-tokietara zabaldu. Andres Rabagok gure bizitzan, ura ezinbestekoa dela ohartarazi nahi du, eta herritarrak kontzientziatu hortaz. Baita, kutsaduraren eta ingurugiroaren gaineko zenbait erabilpenen ondorio kaltegarrietaz sentibilizatu ere. Gisa honetan, egileak kritikaz beteriko ikuspuntu satiriko batetik agertzen ditu batzuetan dauden kontraesanak. Hauetan erortzen baikara, ohartzean, ura ezinbestekoa dugula bizirauteko, eta aldi berean, ez dugula behar bezain beste zaintzen, horren urria den ondasun hau.

Bestalde erakusketa honi esker, jendeak arreta gehiago ipintzen du jarrera ezberdinetan, hiritarretatik aldentzen diren azpiegitura eta obratan edo urak izan beharko lukeen erabilpenean. Bestalde, ura eta ingurugiroa, orokorrean, bizia duen ente bat bezala agertzen du *El Rotok* bere azken bilduma honetan.



Umore satirikoak erabiliz modu zuzenean kontzientziatu nahi ditu *El Rotok* ikusleak, uraren beharraz. E. EZBIZA

Autoeskolako auto bat eraso du gazte batek

Gertaera » Herenegun lurre auzoan 27 urteko lagun bat atxilotu zuten geldirik zegoen ibilgailua kolpatzeagatik.

ERREDAKZIOA

Hogeita zazpi urteko gazte bat atxilotu zuten herenegun Ertzaintzak autoeskola bateko autoan kalteak eragiteagatik. Atxilotuak kotoxea kolpatu zuen, oraindik ezezagunak diren arrazoiengatik. Ibilgailua aparkatua zegoen lurre auzoan. Barnealdean zeuden, autoeskolako irakaslea eta orduan eskola amaitu zuen ikaslea. Azken hau, jakitera eman dutenez, eraso-tzailearen ezaguna zen.

Herrizaingo sailak jakitera eman duenez, gaztea autora hurbildu zenean autoa kolpatzen hasi

zen ostikoak eta ukabilkadak eman. Haizetako-garbigailua kendu zion ibilgailuari eta honekin leiha-tila bat jo eta apurtu zuen. Ondoren, auto barruan zegoen neska gaztea lasaitu nahian hasi zen eta biek beste auto batean alde egin zuten. Minutu batzuk beranduago itzuli ziren eta susmagarriak autoeskolako kotxearen kontra talka egin zuten bere autoarekin. Ondoren, kotxetik jaitsi zen eta bertan zegoen bizikleta bat jaurti zuten ibaira.

Ertzaintzako patruila bat gerturatu zen hara, baina ordurako, ekintzen egileak alde egin zuen. Halaber, Udaltzaingoa San Esteban auzoan atzeman zuen eraso-tzailea eta atxilotu egin zuen. Herrizaingo sailaren hitzetan, susmagarria oldartu egin zitzaion agenteei. Oraindik argitzeke dauke gertaeraren arrazoiak.

Laburrak

Tolosa Kantari bihar, herriko musikariekin

KULTURA » Bihar, Tolosa Kantari izango da Alde Zaharreko kaleetan. Beti bezala 12:00etan M^o Luisa Agirre doktoarearen plazatxotik abiatuko dira. Oraingoan Tolosako eta Amaroako musikari talde handi baten laguntza izango dute kantatzera hurbiltzen direnek.

Pedagogia sistematikoaren inguruko hitzaldia

GIZARTEA » Pedagogia sistematikoaren inguruko hitzaldia izango da datorren astean Nura gizartea elkartearen egoitzan. Bertan hizlari izango da arlo horretan aditu den Rupa Beverly Rodriguez. Jardunaldia hilaren 29an izango da, 19:00etatik aurrera.

Lurreamendiko Batzarreko hautagaien zat bilerak

GIZARTEA » Lurreamendi Egoitzako Gobernu Batzarreko hautagaiak aurkezteko epea igaro da. Zahar-tzaro Duinakoe eta Amaroako Auzo Elkartekoek aurkeztu dute. Gainontzeko hautagaien zat bilerara deitu dute hilaren 28rako. Kultur Etxean izango da 19:00etan.

arantzazu

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur
uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

Artecan 20 langile kaleratu nahi dituztela salatu dute

Villabona » Enpresak beste bi espediente aurkeztu ditu eta horietako batean aurreikusten ditu langileen kaleratzeak.

ERREDAKZIOA

Villabona Arteca Caucho Metal S.A. enpresan orain lau hilabete eta erdi onarturiko EREa bukatzeaz dago, LAB sindikatutik azaldu dutenez. Langileak hilabete hauetan jardunaldiaren %60an egon dira lan delegaritzak onarturiko espedienteetan. Lehen espedienteak bukatzeaz dagoela enpresak bi espediente aurkeztu dizkie langileei zein Lan Delegaritzari. Espediente batekin 20 langile kaleratzeko asmoa dauka enpresak eta bestearekin beste langile guztiak jardun-



Langileak hasi dira mobilizazioak eginen. HITZA

naldiaren %40an erregulatu nahi ditu.

Kaleratzea salatuz Villabonatik Lasarterainoko kotxe karabana bat egin dute langileek. Mobilizazioek gaur izango dute jarraipena Villabonatik hasi eta Donostiara egingo duten kotxe-karabanare-

kin. Ondoren elkarretaratzea egingo dute Lan Delegaritzaren aurrean.

Enpresa batzordeak (LABeko 5 kidez eta ELAko 4 kidez osatua) negoziatzeko bere prestutasuna adierazi du, betiere kaleratzerik ez egoteko baldintzarekin.

Bertso Eskolen Txapelketa jokoan gaur Villabonan

ERREDAKZIOA

Bertso Eskolen Gipuzkoako Txapelketaren lehen kanporaketa egingo dute gaur arratsaldean Villabonan. 15:00etan bertso paper lehiaketari hasiera emango diote Jesusen Bihotza Ikastolan. ordubeteko tartea izango dute horretarako. Ondoren, 16:30ean, bapateko saioa hasiko da Gurea aretoan.

Bi maila izaten dira txapelketa horretan: 14 urte artekoak eta 14 eta 18 urte bitartekoak. Lehen maila horretan hiru talde ariko dira, baina inor ez eskualdekoa. Helduen mailan Asteasuko bertso eskolako bi kide ariko dira: Ane Labaka lasartearra, iaz txapela eskuratu zuena, eta Oihana Iguaran amasarra, iaz hirugarren egin zuena. Hauekin batera beste lau bertsolari ariko dira maila horretan, artean Asier Azpiroz zubietarra, iazkoan bigarren gelditu zena.

Bigarren kanporaketa gaur, Poltsikokoan

ERREDAKZIOA

Adunak dagoen Asvinenearen Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren kanporaketa izango da gaur, 22:30ean. Bost talde ariko dira lehiaketa: Lauetan biok seigarrenean taldeak *Jan ta ixo!* obra emango du, Tres tristes tristes taldeak *Puerta!*, Iñaki Barriok *El representante*, Banarte Antzerki Taldeak *Los esperados*, Jogo Teatrok

Irrintzi eta *Ferdyk Crisis*. Oraingo kanporaketan, aurrekoan bezalaxe, artista gobidatua izango da ere.

Lehenengo kanporaketaren emaitzarekin gustura daude antolatzaileek. Epaimahaiak La Tiriliparte-hartzailea eta ikus-entzulegoak Maneras de Sentir taldea aukeratu zituzten finalerdietara pasatzeko.



Lehenengo kanporaketan parte hartu zuten guztiak ateratako argazkia. HITZA

Beste behin sartu dira Anoetako Gaztetxean lapurreta egitera

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxean berriro egin dute lapurreta eta dagoeneko zortzigarren aldia da sartzen direla lapurreta egitera. Gaztetxetik azaldu dutenez, «nazkatuta gaude eraso hauetaz».

Bart terrazako atetik sartu ziren eta diru apur bat lapurtu zuten. Hainbat lapurreta izan ondoren ez

dute dirurik gordetzen Gaztetxean eta oraingoan lapurtutako ez da izan kopuru handia. Lapurrek terrazako atea hautsi dute barrura sartzeko eta orain berria jarri behar dute Gaztetxeok. Orain gutxi mobilizazioak egin zituzten Gaztetxeok eta bertan azaldu zuten, «azkeneko miaketek eta lapurretek ez gaituzte geldituko».



Oraingoan terrazako atea hautsi dute lapurrek barrura sartzeko. HITZA

Loatzoko Igoera-Jaitsiera, etzi goizean

ERREDAKZIOA

Etzi jokatu den Loatzoko Igoera-Jaitsiera hamazazpigarrena izango da. Uxo-Toki elkarteak eta Amasako gazteek antolatzen dute. Irteera 10:30ean izango da eta Amasako Uxo-Toki elkartearen eman behar da izena. Doan da proba horretan parte hartzea.

Lehenengo hirurentzat, bai gizonentzat bai emakumeentzat, sariak izango dira. Lehenengoak 120 euro eta txapela jasoko ditu; bigarrenengoak 80 euro eta hi-

ugarrenengoak 60 euro. Proba bukatu eta gero hainbat produktu zozketatuko dituzte parte-hartzaileen artean: arkumea, oilaskoa, txuletak...

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, nahi duten guztiarentzat hainbat emaitza izango da Loatzoko gainean. Bestalde, gogorarazten dute ez dutela istripuen ardura bere gain hartuko. 70 korrikalari inguruk parte hartu ohi dute urtero ibilbide aldatua duen kros horretan.

Astlehenean, apirilak 27, 12:30ean

LEIRE OLABERRIA

ikaztegietako Txirrindulari profesionalarekin
elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zure galderak erantzuteko. Aurrez ere zure galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldekohitza.info webgunean



digitala
h
@

«Zerbitzu sozialen sistema publikoaren aldeko» aldarria

Ekonomia » LABek «izaera arautzailea eta finantziario eta kudeaketa gaitasun osoa duen sistema» baten beharra ikusten du.



Kalitateko zerbitzu sozialen sistema publikoa exijitu zuten pentsiodunek. HITZA

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuaren Helduak eta pentsiodunak arlokoek, «Euskal Herriko kalitateko zerbitzu sozialen sistema publikoa» aldarrikatu, elkarretaratzea egin zuten pasa den astean, Tolosako udal-tertxea kanpoaldean. Sindikatuaren ustez, krisiari aurre egiteko modurik onena «kalitateko zerbitzu sozial publiko eta unibertsalen aldeko apustua egitea» da, hau da, «izaera arautzailea eta finantziario eta kudeaketa gaitasun osoa duen sistema».

Hala, «aukera berdintasuna, pertsonen arreta eta ongizatea eta herritarrek eskatzen dituzten beharri erantzuneko zerbitzu sozialen sistema» exijitzen dute.

«303.950 pertsona pobrezian»

Sindikatu abertzalearen ustez, egungo sistemak «garestiak eta eskasak» dira eta, ondorioz, Euskal

Herrian 303.950 pertsona pobrezia egoeran bizi omen dira. Ildo honetatik «administrazioek gure oinarriko arreta beharriaz kanpo merkatuak balira bezala jorratzen» dituztela eta «gutxi batzuek horri esker negoziatzen egiten» dutelalatu dute LABetik.

Sistema publiko hau ezartzeko zortzi puntu jotzen dituzte beharrezkotzat.

Batetik, «osasun eta hezkuntza sistemaren pareko eskubide subjektibo unibertsalizazio eta aitortza» eskatzen dute. Bestetik, «Fiskalitate parekide eta behar besteko aurrekontu publikoen bitartez finantzatutakoa eta bizi baldintza duinak, autonomia soziala eta pertsonala eta bizi duina izateko beste diru sarrerak bermatzea» aipatzen dituzte.

«Parte-hartze soziala eta autogestio eredu»

Halaber, ez dute onartuko «zerbitzuak pribatizatzea, gutxi batzuek eskubide sozialen lepotik aberastea» eta, beraz, «beharriaz kanpo egokituko da eta ez interes pribatuetara». Zerbitzu hau «eraginkorra» izan behar duela diote «kontrola zorrotza izanik eta ebaluazio soziala» eginik. LABen ustez, «langileen kualifikazio, egonkortasuna eta kontratazio publiko sustatuko duen» sistema izango litzateke «egonkorra» izatea «beharrezkoa» da.

Azken puntu bezala, «zentrotan erabiltzaile zein langileen iritzia kontuan hartuko duen parte-hartze sozial eta autogestio eredu aldarrikatzen» aldarrikatu dute.

28 taldek hartuko dute parte aurten Tolosa Kup Torneoan

Tolosa » Bihar izango dira lehen jardunaldiko partidak; asteburuero jokatuko dituzte Uzturpe kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Bihar emango ditu lehen pausok Tolosa Kup Torneoak. Uzturpe kiroldegia hartuko ditu torneoaren partida guztiak eta larunbat eta igandeetan jokatuko dituzte. Guztira 28 taldek eman dute izena eta lehen jardunaldia asteburu honetan bertan jokatu dute.

Asteburu honetako partidak hauek dira: larunbatean 6 neurketa jokatuko dira, hurrenez hurren: 15:30ean hasi eta 19:40ean azkena, 50 minutuero: Txorimaloak-Amo a Sali Campion; Bonboronea-Makkabi de levantar; The patxis-Uzturre; Bamantol-Hoberena; Ecuador-Sansalus eta Celtic Power-The aste pistols. Epaileak Ecuador eta Bonboronea dira.

Igandekoak, berriz, hauek dira (ordu berdina): 30 xentimo-Elorri; Txanberoa-Forty's; URT-Hamaikaweb; Plomitos-No somos nadie; Bikutz-Gaztelubide; Orbel-Tiki Taka. Epaileak Bikutz eta Txanborak izango dira.

Laburrak

Eskola Txikien Festako kamisetak salgai, bihar

BERROBI » Ekainaren 14an, Eskola Txikien Festa antolatuko dute Berrobin. Arduradunek jakinarazi dutenez, bihar, larunbata, festa honen harira kaleratu dituzten kamisetak salgai jarriko dituzte Tolosako Trianguloan, 11:00etatik 13:00etara bitarte.

Perdiguerora irteera antolatu du Oargik

TOLOSA » Maiatzeko zubian, (hilak 1, 2 eta 3) Oargi mendi elkarteak Perdiguerora (3.221 metro) irteera antolatu du. Joateko interesa dutenek apirilaren 27a baino lehen eman beharko dute izena, 688698642 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbidean; halaber, 3035 0028 11 0281141038 kontu korrontean 20 euroko diru sarrera egin beharko da. Estos aterpetxean hartuko dute ostatu.

Bizi Nahik erromeria antolatu du Izaskunera

IBARRA » Maiatzaren 8an Izaskunen erromeria antolatu du Bizi Nahijubilatu elkarteak. 9:30ean oinez abiatuko dira, 11:30ean toka izango da gizonentzat, 12:00etan autobusa, 12:15ean toka emakumeentzat, 13:00etan meza, eta 14:00etan bazkaria, omenaldia eta Los Rubi-rekin dantzaldia.

KELER 18

Elastiko paregabea, 100 urte paregabe ospatzeko.

20
Lortu zure elastikoa
100eko bilduta

Keler-ek zuen esaldiakin parte hartu duzun milaka errealek zaleci eskerrak eman nahi dizkizue mendeurrenako elastikoa errealitate bihurtzeko. Eta gogoratu Keler-en 20 sustapen idunek bilduta, zure lor dezakizula, fisalaren denda ofizialean, Arco Amara merkataritza gunean.

Promozio honek abuztuaren 30 arte, zure izenak bukatu arte iraungo du. Promozioa pertsona eta/edo elve bakoitzeko bi elastikoa mugatzen da. Keler-ek kontsumo arduratsua aholkatzen du. 6,3€

REALAREN BAREKILE OFIZIALA

Laburrak

Odola emateko aukera izango da asteartean

AMEZKETA ● Datorren asteartean, Amezketan odola emateko aukera izango da. Arratsaldean izango da zita, 18:30etik 20:30era bitartean, balioanitzeko gelan. Beraz, odola eman nahi duen orok aukera izango du datorren astean, bai herriarrek eta baita inguruko herrikoek ere.

Mikel Olazabalek gaur jokatu du txapelketa

ARESO ● Bigarren Mailako Eskuz Banakako Txapelketaren baitan, Mikel Olazabal aresoarrak gaur jokatu du pilota partida, Galarza VI.aren kontra, hain zuzen ere. Bi pilotariak Urretxun aritu beharko dira. Partida hau final zortzirenetakoa da.

Patinetan ikasteko ikastaroa antolatu dute

IKAZTEGIETA ● Ikaztegieta Udalak patinaje ikastaroa antolatu du. Bost larunbatetan izango litzateke, 10:00etatik 11:00etara bitartean. Maiatzaren 9an hasiko dira; izena emateko epea hilaren 30ean itxiko da eta, beraz, parte hartu nahi dutenek udaltxerara jo beharko dute 09:00etatik 15:00etara bitartean, bost euro orduan ordainduz. Eguraldi ona eginez gero, plazan ikasiko lukete, eta bestela kiroldegian. Udalak herritarrek animatu nahi ditu, adin guztiakoa, hau ez baita oztopoia izango bertan parte hartzeko.

Herriko mugarrak batzuk ezagutzeko ibilaldia, bihar

LEITZA ● Bihar mendi ibilaldia izanen da Leitza. Kasu honetan, *Mugarrien itzulia* egingen dute. 07:00etan abiatuko dira herriko plazatik. Handik Kortekobordara joanen dira eta ondoren Rezola zentralera. Ibilaldia 6-7 ordu ingurukoa izanen da. Ekimen hau Mendibil menditaldeak, Aurrera Kirol Elkartek eta Leitza Kultur Taldeak antolatu dute. Informazio gehiago www.mendibilaurrera.nire-blog.com webgunean eskura daiteke.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar da, arratsaldez. Adineko pertsona zaintzeko, kotxea beharko du. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean. 943117285.
■ **Zaintzailea.** Neska euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Orduetgia: 10:30etik 13:30era. Harremanetarako telefono zenbakia: 625705059.

Drogei buruzko hitzaldia antolatu dute datorren astearterako

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean, Leitzako Denok Bat guraso elkarte eta Gizarte Zerbitzuak antolatu dute drogei lotutako hitzaldia egingen dute. *Gurasoak eta haurrak drogen aurrean* izena jarri diote.

«Hor daude era guztietako drogak, hor daude gure seme-alabak, eta hor gaude gu, gurasoak. Horixe dago gaia, eta ziur asko horren inguruko hainbat iritzi, zalantza eta galdera dauzkagu». Horietaz hitz egiteko, eta horiek konpartitzeko balio du astearteko hitzaldi-solasaldi honek. 17:00etan hasiko da eskolako jantokian.

Hizlaria Drogamenpekotasunaren prebentziorako zerbitzuko Teresa Martinez izanen da. Gurasoei zuzendutakoa da berez, eta horregatik, hitzaldiak irauten duen bitartean, umeekin egoteko begiraleak egonen dira.

IV. Satur Eleta musika Lehiaketa jokatu da bihar Muxun

ERREDAKZIOA

Bihar musika ikasten ari diren leitzar eta aresoar asko Lekunberrira gerturatuko dira, IV. Satur Eleta lehiaketan parte hartzera asko, eta beste hainbeste saioaz gozatzen.

Muxu Aretoa izanen da (orain arte 31 aretoa zena) 17:00etan hasita. Guztira 10 musikari leitzar eta aresoar bat iritsi dira final handira hainbat kanporaketa egin behar izan ondoren. Akordeoia, pianoa, gitara, saxofoia, txistua eta perkusioa jotzen dute hauek.

Txapelketan Ultzamako, Basaburuako, Larraungo, Goizuetako eta Araitz-Beteluko jendeak hartuko du parte.

■ **Garbiketak.** BIGI garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04 edo Itsaso: 695 70 82 71.
■ **Zaintzeko edo etxeko lanetarako.** Emakume euskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko zein adinekoak zaintzeko. Autoarekin. Harremanetarako: 943 67 38 35.



Elizaren ondareei buruzko hitzaldia

LEITZA ● Herenegun iluntzean Leitzako eliza ganbaran bi apaiz gaztek hitzaldi bat eman zuten; eliz ondareari buruz aritu ziren Inaxio Oskoaga eta Mikel Larranberere (San Migelgo arduraduna). Biak Leitza aritutakoak dira apaiz. 50 lagun inguru elkartu ziren eta oro-

korrean aipatu zuten honakoa izan zen: elizaren ondareak eta herritarrek edo Udalak izendatzen dituen ondareak bereizten zituzten. Honen harira, eztabaida sortu zen herritarren artean, hainbat ikuspuntu plaza-ratuz. HITZA

Nafar Jokoak hasiko dira bihar eta Leitza bost partida izanen dira

LEITZA ● GRAVN Txapelketaren baitan Nafarroa jubenilen mailan Nafarroa ordezkatzu Jon Jaunarena ariko da Irurtzunen.

ERREDAKZIOA

Leitza, bihar bertan Nafar Jokoen txapelketako hainbat partida jokatu dituzte. Ekainaren erdialdera bukatuko da txapelketa hau. Jaialdia 10:00etan hasiko da eta lau mailatan lau partida jokatu dituzte leitzarrek Amazabal pilotalekuan.

Aurrera taldeko Eskudero-Altzelai benjaminak Sutegi Bren kontra aritu beharko dira. Ondoren, Gil-Eraso alebinak ariko dira Mendillorrikoen kontra. Segidan Sagastibeltza-Zubiria bikotea San Miguelen aurka lehiatu beharko dira infantilen mailan. Bukatzeko, Aizagirre-X. Jaunarena kadeteek



Bi txapela eskuratu zituzten iaz martxoan Nafar Jokotako finalean. Mikel Sagastibeltza eta Ander Garziarena txapeladunak irudian. HITZA

Oberenako bikotearen aurka jokatu dute.

Burlatan, Lizarran, Iruñan eta Antsoainen jokatu dituzte beste partida batzuk, Nafar Jokoen baitan beti ere. Hauetan aurkariak Zugarralde, San Migel, Oberena eta Gazte Berriak pilota eskolakoak izanen dira.

Beste txapelketa batzuetan

Emakumeen Paleta Goma Txapelketari dagokionez, Aurrerako Agirre eta Aristorena Iruritako Txapelketan ariko dira, kasu honetan Janira eta Rebekaren aurka aritzeko. 10:00etan hasiko dira, Iruritan bihar bertan.

Bestalde, Irurtzunen GRAVN Txapelketako jubenilen arteko finalerdia izanen da: Nafarroa ordezkatzun, Jon Jaunarena ariko da eta Errioxako Iturriagaren aurka jokatu du. 18:00etan hasiko dira. Gogoratu behar da, GRAVNen Gipuzkoako, Errioxako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako Txapelketatan irabazle izan direnak aritzen direla.

Elgetako Txapelketan etzi Mikel Hernandorena ariko da, eta Gasteizen bihar, Zaramagako Txapelketaren baitan eta infantilen mailan, Olano-Tolosa eta Prado-Iturriaga aurrez aurre ariko dira.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Liburua eskuan eta ibili munduan

Liburuaren Nazioarteko Eguna » Anoetak, Ibarak, Tolosak, Leitzak, Amezketak eta Abaltzisketak bat egin dute literaturaren jaiarekin.



Leitzako Amazabal Institutuko Sorkuntza Literarioko Taldea goian. Beheran, Hizki-Marrakzi lehiaketako saridunak. A. I.



Ibarrako Uzturpe Ikastolan hauteskundeak. HITZA



Xabier Olarra itzultzailea Amazabal Institutuan. A. IMAZ



Tolosako Galarraga Liburutegian liburuak kalean. E. EZEIZA



Idoia Sanchez ipun kontalaria Abaltzisketan egon zen. A. I.

ASIER IMAZ

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten hainbat herritan atzokoan.

Tolosako Haur Liburutegian, liburu mailegu bakoitzeko piruleta bana jaso zuten irakurleek. Amezketan eta Abaltzisketan Idoia Sanchezek ipuinak kontatu zizkien haurrei.

Amazabal Institutua

Leitzako Institutuan liburuaren erakusketa antolatu zuten liburutegian. Bertan, ikasleek eta irakasleek eraman zituzten liburuak, euren aipamen edo iritzia eta guzti.

DBH 4. A eta 4. B mailakoek Xabier Olarraren hitzaldiaz gozatu zuten. Liburu itzultzaileak nobela beltzaren inguruan hitz egin zien ikasleei.

Liburuaren Nazioarteko Eguna biribiltzeko, 1. DBHko ikasleek, Sorkuntza Literarioko taldekideek, ekimen berezia burutu zuten. Amazabal Institutik Erleta Eskolara joan ziren; lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasleei eurek sortutako ipuinak kontatzera.

Azkenik 4. dibertsifikazioak egindako kartel lehiaketa aipatu behar da.

Uzturpen hauteskundeak

Ibarrako Uzturpe Ikastolako Haur Hezkuntzako irakasleek digitalizaturiko pantailaren bidez irakurri zizkieten ipuinak ikasle guztiei.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek Yolanda Arrieta-ekin egon zuten saioa.

Bestetik, Nafarroako Ikastolen Federaziotik sortutako Juul kanpainaren barruan kokaturik, Ibarako Uzturpe Ikastolak Haur

Hezkuntzako 3 urteko ikasleengandik hasi eta DBH 4ko, 16 urteko, ikasle guztiek bere liburu eta ilustratzaile gogokoena hautatzeko aukera izan zuten.

Ikasleek Hauteskunde Mahaia 09:00etan eratu zuten eta ondoren 11:00ak arte bozkatzeko aukera eduki zuten.

Haur Hezkuntzan liburutik bozkatuena *Muxuak* izan zen eta marrazki gogokoena *Munstro bat ohe azpian* liburuak izan ziren. LH 1-2koek Michael Grejniec-en *Nola dastatu ilargia* liburuak bozkatu zuten gehien, ilustratzailea Michael Grjnic aukeratu zuten. LH 3-4koek liburutik gogokoena Toti Martinez de Lezearen *Nur eta irlandar gnomoa* eta ilustratzailea Juan Luis Landa aukeratu zuten. LH 5-6koek Anjel Lertxundiren *Mursubero mon amour* liburuak aukeratu zuten eta ilustratzaile onena Luis Atrain hautatu zuten. DBHkoek liburutik gogokoena *35 kilo esperantza* eta marrazkigile gogokoena Asisko Urmeneta aukeratu zuten.

Hizki-Marrakzi Anoetan

Anoetako Udalak eta Herri Ikastolak elkarlanean antolatutako Hizki-Marrakzi Ipuin Marraztuen Lehiaketaren sariak atzo banatu zituzten Herri Ikastolan.

Sari banaketa saiora ikasle, irakasle eta hainbat guraso joan ziren. Irabazleek euren sariak jasotzeaz gain, lehiaketara aurkeztutako lanak irakurri zituzten.

2009ko Hizki-Marrakzi Lehiaketara 80 ipuin aurkeztu dira. E kategorian, gazte eta helduei zego kienean, ez da ipuinik aurkeztu. Ondorioz, ondorengo urteetan hau indartu beharra ikusi dute.

» HIZKI-MARRAZKI LEHIAKETAKO SARITUAK

LH3. eta 4. maila

1. Unai Urkola. *Bi sorgin eta dendari gezurtia.*

2. Koldo Descalzo. *Lupa galdua.*

3. Laila Tarik. *Alejandro eta bere txakurra.*

LH5. eta 6. maila

1. Ainhoa Simpler. *Itxasoak ekarritako anaia.*

2. Lide Aranzabe. *Mutiko xeblebra.*

3. Amaia Estanga. *Ametzak egi.*

DBH 1. eta 2. maila

1. Jon Fernandez. *Ardi latxa.*

2. Alex Haranburu eta Iker Etxe-

berria. *Osizuloko zarakak.*

3. Andrea Davila eta Janire Calleja. *Amonaren sekretua.*

Akzesita, Maddalen Loidi. *Maitasunaren heriotza.*

DBH 3

1. Ainara Etxabeguren eta Olaia Etxeberria. *Aitonaren istorio zaharrrak.*

2. Zuriñe Gonzalez eta Ainhoa del Barco. *Sentimendu nahasiak.*

3. Aitana Miner, Pertsona ote naiz.

Akzesita, Imanol Caverro eta Iraitz Leunda. *Lagun txarrak.*



20°
6°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Komunikatzeko gaitasunaz ikastaroa hilaren 25ean, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era. Informazioa eta izen eman nahi duenak 943 118669 telefono zenbakian egin dezake.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Kanpaikajo bitartean* Glu glu ekoiztetxearen antzezlanaren Atxulondo kultur etxean 22:00etan, antzerki jardunaldien barruan.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Jose Antonio Marina irakasle eta filosofoak adimen ekoizketaren inguruan hitz egingo du Kultur Etxean 20:00etatik aurrera, Naturaldia jardunaldiak amaitzeko.

■ **Ibarra.** Gema Estevezek Parkinsonekin nola bizi azalduko du Bizi nahi jubilatuta elkartearen 17:00etatik aurrera.

Musika

■ **Tolosa.** Willis Drummond eta Sharon Stoner taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa-Villabona.** Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa Gurea aretoan eta Jesusen Bihotza ikastolan 16:00etan.

Zinema

■ **Villabona.** Gurea aretoan *The Reader* filma emango dute gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30ean eta apirilaren 27an 21:30ean.

■ **Tolosa.** *El luchador* filma emango dute Leidor aretoan gaur 22:30ean eta etzi, igandea, 22:00etan.

Irteerak


■ **Tolosa.** Amaratzeko jubilatuek Arnedora irteera antolatuta dute hilaren 26rako. Izen-ematea, jubilatuen egoitzan gaur 17:00etatik 20:00etara (12 euro). Informazio gehiago 653 747192 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Era askotariko planak



LINZA ● Paisaia ederra bidali du Garik argazki lehiaketara: «Linzako paisai zoragarri hau bidaltzen dizuet. Nahiz eta sinple izan, mendiz eta ur jautziez inguratutako koloredun argazkia da.». GARI SAGASTIBELTZA (IKAZTEGIETA)



GAZTEMARTXA ● Gazte Martxan izan zen Oier eta bertako irudi bat ekarri digu: «Apirilaren 10-11-12 an, Euskal Herriko gazte independentista askok egin genuen gazte martxako argazki bat da, mendi martxa Amaiurko paraje zoragarrietan hasi eta Garazin amaitu zen». OIER URKOLA



MAROKO ● Erretratu ederra lortu zuen Kristinak Marokora egindako bidaian. «Aurtengo Aste Santuan Marokon izan gara. Argazki honetan bertako haur baten irrifarra ikus daiteke GOXOKI batzuk lortu ostean». KRISTINA URRETBIZKAZIA

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa



Pello Zabalen
Eguraldia beti airean
liburua

Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Apirilaren 25ean, larunbata, BERRIArekin.

2.- KUPOIAK ITSATSU

Apirilaren 25etik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 4.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta, handik bi astera, kiosko berean izango duzu liburua. **3,90 €-ren truke** jasotzeko.

Ipar Euskal Herriko irakurleek ez duzue kartilla bete beharko, baizik eta zuzenean deitu beharko duzue Harpidetza Saileko telefonora: (0034) 943-30 43 45.



Apirilak 25, larunbata
kartilla eta 1. kupoia berriarekin

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:
Nahitako izangai duzue: **943-30 43 45**
telefonora deitzea edo www.berria.info
webgunean izena ematea, eta 3,40 €-ren
truke etxean jasoko duzue liburua.

Esan
kutxa

AUKERA EZAZU.
BIZI EUSKATZ
berria